

Hondarribiko sorginak gogoan

Aski ezaguna da jende askorentzat, baita hondarribiarrentzat ere, 1610 sorginkeria egin izanagatik Zugarramurdiko hamabi emakume erretzera zigortu zituen prozesua. Baina antzeko pasarte bat ere gertatu zen Hondarribian, urtebete beranduago, eta oraindik gertakari haren oihartzuna entzungai zela.

Ostiral batean izan zen, 1611ko maiatzaren 6an, bertako alkate Sancho de Ubilla eta Gabriel de Abadia zirela. Orduan hasi zen Hondarribian sei emakume sorginkeriatik epaitzeko prozesua. Akusatu guztiak, mugaz bestaldekoak, bertako soldaduekin ezkonduak emakumeak.

Haien izenak, Maria Illarra (Mayora goitizenaz ezagunagoa), Maria Etxegarai, Maria Garro, Maria Oianguren, Catalina Bereasarra eta Inesa Gaxen.

Haien aurkako testigantzak, zenbait ume eta neraberrenak. Hamahiru urteko Maria Alzuetak eta Isabel Garciak eta hamalauko Isabel Aranok, beste zenbaiten artean, emakume hauek 'gauetz etxera etorri, eskutik hatu eta leihotik hegan Jaizkibelgo Santa Barbara baselizako inguruan akelarre batetan parte hartzera eramán' zituztela deklaratu zuten. 'Akerraren errittoa eta meza beltzak' bizi izana aitortu zituzten lekuko hauek.

'Ia seguru presiopean, sei emakume haietatik bostek, Inesa Gaxenek ezik, sorginak zirela onartu zuten', gogoratzen du Kote Guevarak, Hondarribiko liburutegiko arduraduna den eta hiriko historiaren ezagutza zabala duenak.

INKISIZIORA

Libre baina erbesteratuta

Prozesu guzti haren kronika egiten duen dokumentu ofiziala udal artxiboan gordeta dago. 'Hortik dakigu Hondarribian egin zen epaiketari sei emakumeak erruduntzat jo zituztela eta kasua Logroñon zegoen Inkisizioaren Epaitegira bidali zutela, honek epaiketa egin eta beharrezko zigorra finka zezan', azaldu du Guevarak.

Ia bi urte luzatu zen prozesu hura. Bitartean, Maria Illarra, Maria Etxegarai, Maria Garro, Maria Oianguren, Catalina Bereasarra eta Inesa Gaxenek kartzelaren gogortasuna pairatu behar izan zuten eta beren ondasunak, eskasak edozein kasutan, konfiskatu egin zituzten.

Sei hondarribiar hauek, bereziki Zugarramurdiko gertakarien ondoren sorginen inguruan izua nagusi zen momentu hartan, 'zortea izan zuten Logroñoko Inkisizioan epaile zen Alonso de Salazar y Fríasekin. Honek, libre utzi zituen akusatuak, baina hala ere, hirian jendea ez zen konforme geratu eta Udalak erbesteratu egin zituen', gogoratu du Hondarribiko liburutegiko arduradun nagusiak.

EKINTZAK HIL HONETAN

Sorginkeria aitzakiatzat

Hondarribiar gutxik ezagutzen dute duela 400 urte bertan gertatu zena. 'Ez da gure historiako atal ezagunenetakoa eta apenas gera-tzen da honen aztarnarik; horregatik, hilabete honetan zehar liburutegian prozesu hura aitzakiatzat hartu eta sorginak eta sorginkeriari buruzko zenbait ekimen antolatu ditugu', esan du Kote Guevarak.

Sorginkeria epaiketa haren dokumentazio ofizialaz gain, apenas dago beste idatzirik gai honen inguruan; '1909an, Juan Arzadunek, artxiboko paperetan agertzen zenari buruzko kronika bat argitaratu zuen eta 1970.eko hamarkadan, Robert Pastorek Inesa de Gaxen y otras cinco brujas eleberria argitaratu zuen', gogoratu du Guevarak.

Sei emakume haien izenak inork gutxik gogoratzen ditu, Inesa Gaxenena ezik. Garai batetan Kai Amets liburu denda Gaxen Modas arropa denda bihurtu zuten Manueltxo Etxebestek eta Mercedes Balerdik, eta gero, Gaxen kafetegia zabaldu zuten, duela 20tik gora urte familia honen negozioa izan dena.

'Epaiketa haren berri ezagutzen genuen senarrak eta biok, baina egia da hondarribiarrek oso gutxi dakigula orokorrean. Liburu azoketan eta aurkitu izan genuen honen berri bazuenik. Gero, kafetegiaren izenaz gainera, logotipoan, sorgin baten ile luzea jarri genion', gogoratzen zuen atzo bertan Mercedes Balerdik.